



IBAIZABAL

# BIBLIAKO HISTORIOAK

J. R. Sáenz Uranga

C. Monzón

Zorionak Bilduma



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.

© Ibaizabal Argitaletxea, 1994

ISBN: 84-7992-557-4

Legezko gordailua: BI-2339-94

Bilduma-diseinua: C. Monzón eta J.A. Tellaetxe


Tailer grafikoak: ZURE S.A.

# BIBLIAKO ISTORIOAK

*Egilea:* José Ramón Sáenz Uranga

*Marrazkiak:* Carlos Monzón

*Euskerazko moldatzailea:* Sabin Barruetabeña



UMEENTZAKO  
BIBLIOTEKA  
INFANTIL  
KULTUR ETXEA-BASAURI

R.10.998

# *Aurkibidea*

Aurkezpena .....	5
Lehenengo istoria: Jaungoikoak unibertsoa sortzen dau .....	9
Bigarren istorioa: Jaungoikoak gizona eta emakumea sortzen dauz .....	15
Hirugarren istorioa: Froga handia .....	19
Laugarren istorioa: Kain eta Abel .....	27
Bostgarren istorioa: Uholde unibertsala .....	35
Seigarren istorioa: Babelko dorrea .....	41



*E*skuetan dozun liburu hau...

Ui, hau burua nirea! Zuen aurrean aurkeztea ahaztu jat:

Biblia idatzi eben idazleetako bat nozue. Liburu horrek, beste gauza askoren artean, Nazaretheko Jesusen bizitzearen barri emoten deusku.

Zein dan nire izena? Idazle anonimoa naz, hau da, nire izena ezezaguna da. Eta sarritan, pentsatu, nik neuk ere ez dot gogoratzen... Hainbeste denpora igarro da ordutik...

Baina gogoan dot, hemen irakurriko dozuzan zatietako batzuk neuk idatzitakoak dirala. Ez danak, jakina, bat baino gehiago izan ginalako Biblia idatzi genduanak.

Hasteko, ohartxo bat: hemen irakurriko dozuzan gauzak ez ziran gertatu hemen kontatzen diran moduan.

Orduan, esango dozu, zergaitik aurkezten dozuez egia balitzaz lez?

Azalpena oso erreza da: oso gauza garrantzitsuak esan gura deutsuguzalako.

Eta, badakizu?, gauza garrantzitsuak esateko genduan modurik onena, istorioak imajinatzea zan, kontakizunak asmatzea. Baina, sakonean, egiak esaten genduzan, gure herriarentzat onak ziran, eta gaur egun ere zuentzat onak diran gauzak esaten genduzan.

Gu, israeldarrak, ekialdeko herria gara, eta ekialdekook, erreztasun handia dogu kontakizunak asmatzeko. Gainera, atsegin dogu egitea.

Beno, ez naiten gehiegi luzatu. Lehenengo istorioa kontatzeko ordua heldu da.

Italiarrei holan deritxe Italian jaiok diralako; frantsesei Frantzian jaiok diralako, etab.

Ni israeldarra naz, Israel izeneko herrialde baten jaiok nintzalako.

Baina herrialde izan aurretik, gure arbasoak (gure aurretik bizi izan ziranak) oso gitxi ziran, eta Egipton bizi ziran. Faraoiaren, herrialde handi haretan agintzen eban gizon ahaltsuaren, esklabu ziran.


Faraoiak oso txarto tratatzen ebazan, eta lanik txarrenak egin behar izaten ebezan. Horren ondorioz oso bizimodu gogorra eroen.

Esklabu gizarajo hareek otoitz egin eutsien Jaungoikoari, lagundu eta libre bitzeko aukerea emon eien. Eta Jaungoikoak israeldarren otoitzak entzun eta esklabutatik askatu ebazan.

Baina ez eizu uste Jaungoikoa Egiptora jaitsi zanik zuzenean israeldarrak askatera, pertsona bat erabili eban, gaur egun ere guretzat oso maitea dana: Moises.

Moises izan zan, hain zuzen ere, gure arbasoak basamortuan zehar berrogei urtez gidatu ebazana, eta azkenean, gorabehera asko igaro ondoren, gaur egun Israel izenaz ezagutzen dogun herrialdera heldu ziran.





Zeinen gitxi ezagutzen genduan sasoi haretan gure Jaungoikoa! Guk genkian gauza bakarra hauxe zan: esklabutzatik askatu ginduzala eta bizitzeko lurralde bat emon euskula.

Bagenkian faraoia ahaltsua zana, baina gure Jaungoikoa ahaltsuago, askoz ere ahaltsuago zana. Ez eban holan erakutsi gu askatzean, ala zer?

Bai, Jainkoaz jakin genduan lehenengo gauzea honako hau izan zan: Jainko Askatzailea zala, gizakiak libre izatea gura ebala, eta ez inoren esklabu.

Hirurehun urte geroago (Jesus jaio baino 1200 urte lehenago), gitxi gorabehera, gure herriaren historiaren zati batzuk idazteari ekin geuntsan.

Garai haretan honako itaun honeek egiten geuntsazan geure buruari: nork sortuak gara gizon eta emakumeak? ... Nork egin eban bizi garan mundu hau?

Eta zera pentsatu genduan: Jaungoikoak beste inor baino gehiago dala erakutsi dau. Faraoia eta mundu osoko errege guztiak batera baino gehiago. Gizakiak izan al dira munduaren sortzaileak? Ez. Ba gure Jaungoikoak izan behar mundua eta gu, pertsonak, sortu gaituana.

Eta baita asmatu ere.

Orain bagenkian gure Jaungoikoa Sortzailea eta Askatzailea zala.

Gogoratu egingo deutsudaz garai haretan idatzi genduzan istorioetako batzuk. Ziur nago atsegin izango dozuzala. Hasiko gara?





Artean ezer existitzen ez zanean, Jaungoikoak (betidanik existitzen dnak) zerua eta lurra, hau da, unibertsoa, sortu eban.

Jaungoikoak esan eban:

*–Izan bedi argia.*

Eta berehala, iluntasun handi haretan, argitasuna egin zan.

Jaungoikoak ikusi eban eginikoa ona zala, eta bereizi egin ebazan argitasuna eta iluntasuna.

Argitasunari eguna deitu eutsan, eta iluntasunari, barriz, gaua.

Holan igaro zan lehenengo eguna.

Bigarren egunean, Jaungoikoak esan eban:

*–Izan bedi sabaia uren artean, goiko eta beheko urak bereiztu daizan.*

Jaungoikoak sabaia egin eban, eta bereizi egin ebazan gaineko eta azpiko urak.

Eta sabai horri zeru izena jarri eutsan.

Jaungoikoak esan eban:

*–Batu beitez multzoan zeru azpiko urak eta agertu bedi lehorra.*



Eta holan gertatu zan.

Jaungoikoak lurra deitu eutsen gune lehorrei, eta urez beterikoei, itsasoa.

Egindakoa ondo egoala ikusirik, esan eban:

*–Emon beiz bedar bezoa, hazidun landarak eta orotariko frutarbolak eurenhazi eta guzti.*

Dana Jaungoikoak esandako moduan egin zan.

Eta horrelan igaro zan hirugarren eguna.

Esan eban Jaungoikoak:

*–Izan beitez argizagiak zeru sabaian, eguna eta gaua bereizteko, eta lurrari argi egiteko.*

Jaungoikoak argizagi handi bi egin ebazan: handiena egunaren gain jarteko, eta txikiena gauaren gain. Eta izarrak ere egin ebazan.

Eta ikusi eban Jaungoikoak egindakoa ondo egoala.


Eta holan igaro zan laugarren eguna.

Esan eban Jaungoikoak:

*–Egin beie urak borbor bizidunez; egin beie hegaz hegaztiak lurraren gainean, airean.*

Jaungoikoak egun horretan eginiko guztia ondo egoala ikusirik, animaliak bedeinkatu eta agindu bat emon eutsen:

*–Sortu eizuez zeuok lako beste izaki batzuk, eta gero eta ugariago egin zaiteze.*



UMEENTZAKO  
BIBLIOTEKA  
INFANTIL  
KULTUR ETXEA-DASARI

Bostgarren eguna igaro zan.

Esan eban Jaungoikoak:

*–Emon beiz lurra orotariko bizidunak: abereak, piztiak eta narrastiak.*

Eta Jaungoikoak esandako moduan gertatu zan.

Eta ikusi eban egun haretan egindakoa ondo egoala.

Ziur naz gauza batez konturatu zarala: Jaungoikoak gauza bat zelan sortzen dauan kontatzen deusugun bakoitzean, ondoren, ondo iruditu jakola edo egindakoa ondo egoala ikusi ebala jarten dogu.

Baina, ondo egoan... zertarako?

Ona zan... norentzat?

Jaungoikoarentzat bakarrik zan ona eta ondo egoan... ala beste norbaitentzat ere bai?


Gogoratu eizu beti hau: Jaungoikoa maitasuna da. Horrek esan gura dau, Jaungoikoaren maitasuna hain handia danez, maitatzeko baten bat behar dauala, Berak sentitzen dauan maitasun handi hori emoteko baten bat.

Horregaitik, beste guztiaren ondoren, gizakiak sortzen dauz, hau da, gizonak eta emakumeak.

Orain arte egin dauana, pertsonak bizi izango diran gunea prestatzea izan da, eta pertsonak behar izango daberen guztiaz inguratzea. Ama batek bere seme-txoa jaio aurretik egiten dauan lez.

Orain badakizu Jaungoikoak egindakoa ondo egoala, ona zala lurrean bizi behar eben gizonezko eta emakumezkoentzat.





Beste gauza bat: Ez jatzu iruditu azken eguneko lanari zeozer falta jakola?  
Jakina, oraindino ez dago amaiturik. Oraindino zeozer falta da.

Irakurri eizu arreta handiz orain gertatuko dana.



*J*eigarren egun berean Jaungoikoak esan eban:

*–Egin daigun gizakia, eta berak agindu daiala nik egin dodan guztiarengan.*

Egin eban, bada, gizona lurretik hartutako lokatzez, Bere arnasea bota... eta gizona bizidun bilakatu zan.

Baina Jaungoikoak ikusi eban gizona oso bakarrik egoala. Eta esan eutsan bere buruari:

*–Ez da on gizona bakarrik egotea. Lagun bat, emakume bat, egingo deusat.*

Jaungoikoak lozorroan murgilazo eban gizona. Eta, lo egoan bitartean, saihets bat kendu eutsan eta haregaz lagun bat sortu eban beronentzat.

Gizonak, bere loalditik itzartu eta andrea ikusi ebanean, esan eban, pozez beterik:

*–Hau bai dala nire hazurraren hazur, nire haragiaren haragi! Emakume izango da deitua gizakumeagandik izan dalako hartua.*

Jaungoikoak gizaki barriak sortzeko agindua emon eutsen gizon-andrazkoei.

Horregaitik, andrea eta gizona nagusi egiten diranean, euren gurasoen etxea itzi eta alkarregaz bizitzera joaten dira, betirako, familia barria sortzeko.

Biak ere zoriontsuak ziran ortu eder, paradisu haretan. Dan-dana erabili eikien. Eta, garrantzitsuena, Jaungoikoaren lagun ziran.

Imajinatzen dozu zeinen zoriontsu izango ziran Jaungoikoa euren adiskide zala jakinez?

Baina, jakina, adiskidetasuna erakutsi egin behar da. Ez da nahikoa esatea “ni Jaungoikoaren lagun handia naz...” gero Harek esandakoa egiten ez bada.

Hori holan izanik, Jaungoikoak zer moduzko adiskideak ebazan jakin gura izan eban, eta proba bat jarri eutsen, zelan portatzen ziran ikusteko.

Honako hau esan eutsen:

*–Arbola guztietako frutak jan daikezuez, baratzaren erdian dagoan arbolakoak izan ezik. Nik esandakoa ez egitea eta zuhaitz horretako frutak jatea, nire adiskideak izan gura ez dozuen seinale izango da.*

Sei egunetan Jaungoikoak gauza guztiak sortu ebazan. Zazpigarren egunean, bere beharretik atsedean hartu eban. Eta zazpigarren eguna bedeinkatu eta santifikatu egin eban.

Seguru nago orain pentsatzen dozula badirudiela Jaungoikoa gu lako gizakia dala. “Jaungoikoak esan eban”, “Jaungoikoari iruditu jakon ondo egoala egindakoa” eta “Jaungoikoak atsedean hartu eban” irakurri dozunez, pertsona itxurea hartzen deutzazū, pertsonok egiten doguzan gauzak egiten dauzalako.

Baina ez da holan. Jaungoikoak ez dauka hankeaz, oinez, begiez, sudurrez eta ahoz eraturiko gorputzik, ez dauka ule zuri eta bizar luze-luzerik... Inork ez daki zelangoa dan, baina ez da gu lakoa. Hori ziur.

Orduan, ez bada gu lako pertsona bat, zergaitik hartu eban atsedean beharrean sei egunez ihardun ondoren?

Zerbaitegaitik idatziko genduan, ez dozu uste?





Honako hau izan zan arrazoia:

Gure herrialdean sei egunez egiten genduan lan, eta zazpigarrena atsedena hartu eta Jaungoikoari otoitz egiteko erabilten genduan. Zuek orain egiten do-  
zuen lez.

Baina jende askok ez eban kasurik egiten, eta zazpigarren eguna ez eban erabilten atsedeen hartzeko eta Jaungoikoari otoitz egiteko.


Horregaitik jarri genduan Jaungoikoak holan egin ebala, guztiei gogoratua-  
zoteko zeinen garrantzitsua dan gorputzaren atsedena eta Jainkoaz gomutatzea,  
astean behin baino ez bada ere.

Egia esateko, Jaungoikoak ez dau atsedeenik hartzen, beti dagoalako guri la-  
guntzen. Eta hori bai lana, pertsonok batzuetan baldar samarrak izaten garalako!

Lehen esan dogu Jaungoikoak proba bat jarri eutsela gizonari eta emaku-  
meari bere adiskideak ziran ala ez ikusteko.

Eta, zer gertatu zan? Onik urten ete eben frogatik? “Hutsa” jarri ete eutsen  
Jaungoikoak?

Hurrengo istorioan ikusiko dozu.



**E**gun baten sugea andrearengana hurreratu zan eta esan eutsan:

*–Beraz, Jaungoikoak ez deusue arboletako frutarik jaten izten, ez da holan?*

*–Ez, ez deusku holangorik esan. Esan deusku arbola guztietako frutak jan daikeguzala, lorategiaren erdian dagoan arbolakoak izan ezik. Fruta horreek jaten badoguz, jada ez garala bere adiskide izango. Hori esan deusku.*

*–Hori bai lelokeria! –esan eban sugeak–. Eta zuk kasu egiten deutsazu? Jaungoikoak badaki arbola horretako frutak jaten badozuez, Bera baizen jakintsuak izango zariela, orduan zer dagoan ondo eta zer txarto jakingo dozuelako, zer dan ona eta zer txarra, Berak orain dakian lez.*

Bakarrik geratu zanean, emakumea lorategi erdiko arbolara hurreratu zan. Zeinen fruta ederrak! Eta zeinen kolore eder eta distiratsuak eukiezan!... Horreek bai fruta goxoak! Eta, gainera, hain jakintsu bihurtzen baebazan eta zer dagoan ondo eta zer txarto erakusten baeutsen... Hori jakinik, Jaungoikoa lakoak izango ziran.

Fruta bat hartu, aginkada bat emon eta senarrari emon eutsan, harek ere jan eian.

Gizonak jan eta berehala, Jaungoikoagaz oso txarto portatu zirala konturatu ziran, bere adiskideak izango ez balitzaz lez, ez ebelako egin Berak agindutakoa.

Une horretan, Jaungoikoaren pausuak entzun ebezan, lorategitik pasioan, arratsaldean, eguneko beroa zeozer arindu zan unean.

Egunero hirurak batera joaten ziran pasioan: Jaungoikoa, emakumea eta gizona. Baina, arratsalde haretan, euren burua errudun ikusten ebenez, zuhaitz batzuen ostean ezkutatu ziran, Jaungoikoak ikusi ez eizan.

Jaungoikoak dei egin eutsen:

*–Non zagoze?*

Adanek zuhaitzaren ostetik burua agertu eta esan eban bildurrez beterik:

*–Zure pausuak entzun doguz...eta bildurra izan dogu. Horregaitik ezkutatu gara.*

*–Eta zergaitik ezkutatu zarie nigandik? –itaundu eban Jaungoikoak–. Ez dogu adiskide izaten jarraitzen, ala? Ez zenduen ba nire agindua abaztu eta ikutu behar ez zenduen arbolatik jango?*

Gizona lotsorra izan zan, eta zeozelan salbatzeko, andrearen erruz izan zala esan eban:

*–Lagun moduan emon zeunstan andreak emon deust frutea.*

Jaungoikoak andreari begiratu eta esan eutsan:

*–Eta zuk, zergaitik egin dozu hori? –*

Andreak ere bere errua zeozelan arintzeko, esan eban, bildurrez beterik:

*–Sugeak engainatu nau... eta jan egin dot –erantzun eban, oso ahots ahulez.*

Orduan, Jaungoikoak sugea madarikatu eban, holan esanez:

*–Madarikatua hi animalia guztien artean. Hemendik aurrera, andrea eta hi arerio izango zarie. Eta, egun baten, andra baten semeak garaitu egingo hau eta burua zapalduko.*





Gero andrearengana zuzendu zan, esateko:

*–Haurdun geratzean, oinazeak ugarituko deusudaz, eta saminez izango dozuz umeak.*

Eta, azkenik, gizonari:

*–Egin deustazuna egitearren, nekatu egin beharko dozu eta izerdia isuri beharko dozu lurra lantzeko eta bertatik janaria lortzeko. Holan izango da zure bizitza guztian, orain arte zure bizileku izan dan lurrera itzultzen zaran arte.*

Adanek (Adan izenak lurretik datorren gizona esan gura dau) Eba izena jarri eutsan emazteari, Eba izenak bizidun guztien ama esan gura daualako.

Eta biok alde egin behar izan eben Edengo ortu eder haretatik, Paradisutik.

Barrero ere Jaungoikoa gu lako pertsona bat balitz lez aitutzen dogu. Orain lorategian bueltatxo bat emoten ere ibilten da beroa apur bat arintzen danean!

Eta arraro egingo jatzun beste gauza bat ere ikusi dozu: berba egiten dauan sugea!

Konturatuko zinan Jaungoikoa ez zala ortuan ibilten (ez dogu esan ez daukala besorik, hankarik, aurpegirik edo gorputzik?), eta animaliak ez dabela berba egiten... alegietan izan ezik.

Zer diran alegiak? Istoriotxo labur-laburrak, asmatuak, non animaliak pertsonen moduan iharduten diran, berba eginez... Gure bizitzarako egokiak diran gauzak erakusteko erabilten dira alegiak.



Ba hori berori da Adan eta Ebaren kontakizunean egin genduana. Pertsonaia bi honeek ez diralako inoiz existitu, munduan izan ziran lehenengo giza-kien irudi baino ez dira. Horregaitik deitzen jake gure lehenengo gurasoak (gure aurreneko arbasoak, antzinakoenak) benetakoak izan ez badira ere.

Edengo ortua (edo Paradisua) ere ez da inoiz existitu, Jaungoikoaren adiskide izanez bizitzeak emoten dauan zoriontasunaren irudia da.

Adan eta Eba pekatura bultzatu ebazan suge berbaduna ere aldi haretako idazleen asmakizuna da. Sugea gaitzaren sinboloa da.

Baina beno: ez Adan, ez Eba, ez sugea eta ez Paradisua, egiazkoak ez badira, zergaitik amaiera hori, Adan eta Eba Paradisutik botaz? Oso erreza: Jaungoikoak esandakoa bete ez dabenez, ez dabe dagoaneko Jaungoikoaren adiskideak izanez bizitzeak emoten dauan zoriontasunik, Jaungoikoaren adiskideak izatearen zoriontasunik.


Ikusten dozu: Jaungoikoak proba bat ipini eutsen, azterketa moduko zeozer egin eutsen... eta biak “huts” atara eben.

Adanek eta Ebak egindako horri “jatorrizko pekatu” esaten jake, hau da, betidanik hor dagoan pekatua, gizonak eta andrak sortu ziranetik.

(Geuk ere, txarto dagoala dakigun zeozer egiten dogunean, Paradisua, Jaungoikoaren adiskide izanez bizitzeak emoten dauan zoriontasuna, galdu izan bagendu lako zeozer da).

(Baina Jaungoikoa hain ona danez, beti dago parkatzeko prest. Izan ere, gureganako maitasuna gure erru eta gaiztakeria guztiak baino askoz handiagoa dalako).







Zer dinozu? ... zapaltzea aitatzen dauan esaldia? Badakit zer esan gura dozun: “Egun baten, andra baten semeak garaitu egingo hau eta burua zapalduko”.

Horrek esan gura dau, egun baten, baten batek, gaitza garaituko dauala. Zein izango dan hori? Jesus. Eta andrea? Ama Birjina.

Ikusi barri dogu pertsonak Jaungoikoaren aurka egin daben pekatua, Jaungoikoaren kontra egin doguna. Orain beste pertsonen kontra egiten dogun pekatua ikusiko dogu.



*A*danek eta Ebak seme bi izan ebezan, eta Kain eta Abel izenak jarri eutsieezan.

Lanean hasi ziranetik, Kainek lurra lantzen ihardun eban, eta Abel artzain egin zan.

Jaungoikoak ikusi eian Berari eutsien maitasuna, Kainek erre egiten ebazan harrizko aldare baten lurrak emoten eutsazan hazi eta fruta batzuk, eta Abelek ardi batzuk hil eta ondoren erre egiten ebazan harrizko aldarean bertan.

Baina, zer gertatzen zan? Abelek ardirik onenak hiltzen ebazan Jaungoikoari eskeintzeko, asko maite ebalako; Kainek, ostera, mota guztietako fruta eta haziak hartzen ebazan, ustel egozanak ere bai (dirudienez ez eban Jaungoikoa hainbeste maite).

Eta, jakina, Jaungoikoak atseginago ebazan Abelen opariak Kainenak baino.

Eta Kain bere anaiaren inbidiatan egoten zan.

Behin baten esan eutsan Jaungoikoak Kaini:

*–Zergaitik ibiltzen zara beti horren aurpegi hasarreaz?*

Kainek ez eban erantzun. Eta Jaungoikoak berbetan jarraitu eban:

*–Ab, Kain, gauzak ondo egingo bazenduz, ez zinateke holan ibiliko. Baina anaiaren inbidiatan zagozanez... oraindino okerragoa dan zeozer egitea daukazu buruan. Ez zaitetz leloa izan, gura izan ezkerorain sentitzen dozun inbidia garaituko dozu eta.*

Egun baten Kainek esan eutsan anaiari ea inguru haretan bueltatxo bat emotera joango ziran. Euren etxetik urrundu ziranean, Abelengana hurreratu eta hil egin eban.

Ondoren bere ibilaldiagaz jarraitu eban.

Orduan, Jaungoikoaren Berbea entzun eban, holan itaunduz:

*–Non da zure anaia Abel?*

Kainek ez jakinarena egin eta modu txarrean erantzun eutsan:

*–Eta nik zer dakit! Anaiaren zaintzaile ete naz ba ni?*

Baina Jaungoikoak esan eutsan:

*–Kain, Kain, zergaitik egin dozu? Orain zigortu egin beharko zaitut. Entzun: munduan zehar ibili eta ibili egingo zara, inon gelditu barik. Hori izango da nire zigorra.*

Orduan, Kain bere anaia hiltan egindako pekatu larriaz jabetu zan. Horregaitik esan eban:

*–Jauna, ez dakit zelan bizi abal izango nazan anaiari egin deusadana buruan izanik. Orain hemendik, Paradisu honetatik bialtzen nozu; eta bizitza guztia zugandik urrun, leku batetik bestera igaro beharko dot. Bildur naz, nor nazan dakian edonork, hil egingo naualako.*

Jaunak erantzun eban:

Ez, nire seme Kain hiltan dauanak ere oso zigor larria izango dau eta.

Eta Jaungoikoak seinale bat jarri eutsan Kaini, inork hil ez eian.



MURBEN

Kain Edengo ortutik (Jaungoikoaren adiskidetasunean hain zoriontsu izan zan lekutik) alde eginez, Nod herrialdera joan zan, Paradisutik ekialdera.

Istorio honeek idatzi genduzanok Kain eta Abel Adanen eta Ebaren semeak zirala jarri genduan. Baina, Adan eta Eba inoiz existitu ez baziran (lehen aitatu dogunez), Kain eta Abel ere ez ziran benetakoak izango, ez dozu uste?

Egia honako hau da: Adan eta Eba munduan izan ziran lehenengo gizonen eta emakumeen irudi dira (hori ere gogoratzen dozu, ezta?). Eta “lehenengo gizonak eta emakumeak” esaten dot, eta ez “lehenengo gizona eta andrea”.

Horren arabera, Kain eta Abel lehenengo gizonen eta emakumeen ondorengoen (seme-alaben, loben... bardin deutso, ondorengo guztien) irudi dira, ondoren bizi izan ziran gizakien irudi, hain zuzen.


Beste gauza bat ere aitatu dugu dagoaneko: Paradisua ez da inoiz existitu. Gizon- emakumeok Jaungoikoaren adiskide garanean eta Haren esanak beteten doguzanean dogun zoriontasunaren irudia da.

Paradisua ez da existitzen, gure barruan sentitzen dogu. Jaungoikoaren adiskide bagara, gure barruan eroango dogu Paradisu hori.

Ondorioz, Paradisua galtzea, Jaungoikoaren adiskide izateak sortzen dauan zoriontasuna galtzea da, Berak atsegin ez dauan zeozer egin dogulako.

Guk idatzi genduan, Jaungoikoak zigortu egin eban Kain, Paradisutik kanpora botaz. Baina, zergaitik jarri genduan hori? Orduan artean ez genkialako Jaungoikoak beti parkatzen dauala. Hori Jesusek erakutsi euskun, gu hil eta askoz geroago.





Eta zein da Jaungoikoak Kaini jarri eutsan seinalea, min egin ez eioen?

Markaren bat bekokian? Kartelen bat paparrean? Uneoro aldean eroan behar eban zeozer, samako, eskuturreko edo eraztun bereziren bat?

Ez, holangorik ez.

Kain ere Jaungoikoaren seme zan. Hori izan zan seinalea: Jaungoikoak Kain ere maite eban, hiltzailea izan arren.

Kaini eta Abeli buruzko istorio honetan oso esaldi garrantzitsu bat dago, Jaungoikoak Kaini egiten deutsan itauna: Non da zure anaia?


Jaungoikoak ez ekian non egoan Abel? Jakina baekiala. Baina itaunak beste asmo bat eukan. Honango zeozer: Zergaitik portatzen zara horren txarto besteakaz? Zergaitik ez zara besteez arduratzen? Zergaitik ez zara eurekaz portatzen eurak zeugaz portatzea gustatuko litzakizun moduan?

Zenbat bider portatzen garan txarto besteakaz, ikaskideakaz, gure adiskidea izan gura dauan eta guk kasurik egiten ez deutsagun eta sarritan burla ere egiten deutsagun ume gizarajo horregaz...!

Jaungoikoak une horretan itaunduko baleusku ea non dan gure anaia, zer erantzun emongo geunskio?

Lehenengo, Adan eta Ebagaz, Jaungoikoak esandakoa ez betetea izan zan: Jaungoikoaren kontrako falta bat. Orain, falta hori pertsonen kontrakoa da.

Apurka-apurka (edo, hobeto esanda, askoka-askoka) pekatua gero eta handiagoa da. Gero eta gehiago, eta gehiago... eta alde guztietatik.





Zer pentsatzen eban Jaungoikoak, Berak horrenbesteko maitasunez egindako munduan hainbeste gaiztakeria ikustean?

Eta oso hasarre egoala idaztea erabagi genduan, eta Berak sortutako guztia ezerezteko gogoia ebalatu.


(Baina hori ez zan posible, idatzi genduan. Dana ezerezteak, Jaungoikoak mundua eta gizakia egin ebazanean porrot egin ebala autortzea izango zan.)

Eta orduan ideia bat izan eban.

Ikusten dozu, barriro ere Jaungoikoa gu lako pertsona bat izango balitz lez aitatzeko dogu.

Eta Haren ideia honako hauze izan zan: munduan pertsona on bat aurkitzen baeban, pertsona bakarra izanik ere, ez eban mundua ezereztuko.

Ekingo deutsagu hurrengo istorioari?



*J*aungoikoak ikusi ebanean gaiztakeriak gero eta indar handiagoa ebala munduan, izaki bizidun guztiak ezereztu behar ebazala erabagi eban.

Sasoi haretako gizakirik onena, zintzoena, Noe zan. Eta Jaungoikoak esan eutsan Noeri:

*–Gizakiak ez dabe merezi nik emon deusedan bizitzea. Lurrean etenba-koak dira gaiztakeriak eta mota guztietako krimenak. Hori dala eta, uholde handi bat bialdu behar dot izaki bizidun guztiak desagetu daitezcan. Zu eta zure familia izan ezik, Noe. Beraz, eregi eizu untzi handi bat (Nik Neuk emon-go deusudaz neurriak) eta sartu zaitetz bertan zeure familiagaz eta animalia espezie bakoitzeko bikote bategaz.*

Noek Jaungoikoak agindutakoa egin eban: untzi bat eregi eban Jaungoikoak emondako neurriakaz eta bertan sartu zan bere familiagaz eta animalia espezie bakoitzeko bikote bategaz.

Zeruko atea zabaldu ziran eta euria egin eban etenbarik berrogei egunez. Dana geratu zan urpean, mendirik garaienak ere bai.

Izaki bizidun guztiak ito egin ziran.

Uholdeak ehun eta berrogeita hamar egun iraun eban. Azkenean, Jaungoikoak oso haize indartsua bialdu eban. Eta, apurka-apurka, uraren mailak behera egin eban. Eta Noeren untzia Ararat mendian geratu zan, handik mogidu ezinik.



Lurra lehor egoan ala ez jakiteko, Noek bele bat askatu eban. Baina belea untzira itzuli zan behin eta barriro.

Gero, uso bat askatu eban, eta harek ere untzira itzuli behar izan eban.

Egun batzuk igaro ondoren, barriro ere usoa askatu eban. Animaliak, itzuli zanean, olibondo adartxo bat ekarri eban pikuan. Orduan Noek jakin eban uraren mailea asko jaitsi zala, eta zuhaitzak ikusten zirala ordurako.

Baina oraindik beste egun batzuk itxaron eban usoa barriro askatu arte. Eta oraingoan, ez zan jada untzira itzuli. Lurra lehorturik egoan!

Esan eutsan orduan Jaungoikoak Noeri:

*–Urten eizu untzitik zeuk eta zeure familiak, eta askatu eizuz animalia guztiak, ugaritu daitezaz eta lur osoa bete daien.*

Holan egin eban Noek: untzitik urten eban familiagaz eta harrizko aldare bat eregi eban. Aldare horretan animalia batzuk hil ebazan Jaungoikoari eskeintzeko, horren uholde itzeletik salbatua izanagaitik eskerrak emoteko.

Esan eutsen Jaungoikoak Noeri eta beste izaki guztiei:

*–Zuok, ugaritu zaitzeze eta bete eizue lurra. Dana eskeintzen deutsuet zuen janari izan daiten. Baina ez eizue giza odolik isuri, baten bat hilten badozue, beste batzuek zuek hilgo zaituelako, eta zuen odola isuriko dabe. Eta orain berbea emoten deutsuet zuei eta mundu osoko izaki bizidun guztiei, ez dala inoiz barriro gertatuko holango hondamendirik. Eta nik esandakoa sines-tu daizuen, arku bat jarriko dot zeruan, ostadarra. Ostadarra izango da munduko izaki bizidun guztiakaz egiten dodan itunaren seinale.*



Konturatuko zinan Jaungoikoak ez dauzala batere atsegin beste pertsoneri egiten deutseguzan kalteak, hau da, ez dau batere atsegin pekatua.

Baina, bere maitasuna hain handia danez, beti ere onak, zintzoak diranak ikusten dauz, bere adiskide diranak, eta horrei esker, Jaungoikoak munduari laguntzen jarraitzen dau.

Irakurri barri dozun istorioan, Noe izan zan pertsona zintzo hori. Berari esker, munduak bizirik jarraitu eban.


Orain, bizi zaran aldi honetan, gaiztakeria asko dagoan arren, oso jende ona ere badago, Jaungoikoaren adiskideak. Hor dozuz Gandhi, Martin Luther King, Romero gotzaina, Aita Ellakuria eta bere lagunak, Aita Kolbe..., danak bizia emon eben mundu hobeago baten alde. Hor dozuz Kalkutako Ama Teresa, eta munduko leku behartsuenetan, bertako biztanleei laguntzen diharduen hainbat eta hainbat misiolari.

Baina, Noeren istorio hau holan gertatu zen? Ez. Uholde Unibertsala geuk asmatu genduan pertsonen gaiztakeria eta Jaungoikoaren mugabako maitasuna erakusteko.

Uste dozu untzi baten sartu daitekezala munduko animalia espezie bakoitzeko bikote bana, milaka eta milaka animalia espezie dagozala kontuan izanik? Pentsatuezineko neurriko itsasuntzia behar izango litzateke.

Eta Ostadarra?


Ostadarra hain da ederra, hain polita... Jaungoikoak zeruan jarri ebala esatea erabagi genduan, ikusten dogun bakoitzean Bera zein ona dan konturatu gaitezana.





Bai, asko eta handiak dira gure pekatuak... baina askoz ere handiagoa da Jaungoikoak guganako daukan maitasuna! Ez inoiz ahaztu!

Ondo baderitxozu hurrengo istorioa ikusiko dogu.





**G**izaki guztiak Xienar lurraldera joan ziran bizitzera, Babiloniara.

Danak berbeta bera egiten eben.

Orduan, esan eutsien batzuek besteei:

*–Egosi daiguzan adreiluak sutan –adreiluak harri lez erabilten ebezan–. Uri bat eregiko dogu, eta bertan, zeruraino helduko dan dorrea egingo dogu. Ospetsu izango gara eta ez gara munduan zehar sakabanatuko.*

Jaungoikoa uria eta dorrea ikustera jaitsi zanean, esan eban: “danak alkar ulertzen dabenez, berbeta bera eginez, gura daben dana egin ahal izango dabe”. Harrokeria hori zigortzeko, bakoitzari berbeta desbardina emongo deusats, eta holan ezin izango deusie alkarri ulertu.

Jaungoikoak berbeta bat emon eutsan bakoitzari, eta, alkarri ulertzen ez eutsienez, ezin izan ebezan uria eta dorrea amaitu.

Eta munduan zehar sakabanatu behar izan eben.

Hori dala eta, uriak Babilonia izena hartu eban, nahasketea, esan gura dauan berbea, Jaungoikoak gizateria nahastu egin ebalako, berbeta desbardinak sortuz eta mundu zabalean sakabanatu eitezan behartuz.

Zer deritxozu orain arteko istorio guztiak gogoratzen badoguz?

Lehenengo istorioa: Jaungoikoak unibertsoa sortzen dau.

Bigarren istorioa: Jaungoikoak gizona eta emakumea sortzen dauz.

Hirugarren istorioa: Adani eta Ebari jarritako proba handia.

Laugarren istorioa: Kain eta Abel.

Bostgarren istorioa: Uholde Unibertsala.

Jarri eizu arreta apur bat eta ikusiko dozu lehenengo ondo antolatuta egoana aurkezten jakula (unibertsoaren, munduaren sorkuntza).

Baina...

Baina, pertsonak agertu eta berehala, gaiztakeria agertzen da munduan (Adan eta Eba).


Adanek eta Ebak Jaungoikoaren aurkako pekatu larria egiten dabe, ez dabe Harek agindutakoa beteten.

Hareen ondorengoak (Kain eta Abel). Horreetako batek (Kainek) oso gauza larria egiten dau anaiaren aurka (beste pertsona baten kontra, Jaungoikoaren seme baten kontra).

Ondoren, lurrean gaiztakeriak gero eta leku handiagoa hartzen dau. Eta mundua desagertzen ez bada, gizon on eta zintzo bati, Jaungoikoaren lagun bati, esker da (Noe).

Eta, azkenik, azken istorioan, jendea oso harroa zala ikusi dogu, pertsonak, Jaungoikoa baizen ahaltzu zirala erakutsi gura ebela. Horregaitik zeruraino helduko zan dorrea egitea erabagi eben.

Baina Jaungoikoak zigortu egin eban hareen harropuzkeria, bakoitzari hizkuntza desbardina emonez, alkarren artean ulertu ez eitezana... eta dorrea ezin izan zan inoiz amaitu.



Ez eizu uste hau dala munduan zehar hainbeste hizkuntza egotearen arrazoia. Ez. Kontakizun hau ere idazleak asmatua da.

Eta, badakizu istorioak zer esan gura dauan hizkuntza desbardinak berba egitea aitatzen dauanean?

Ba, esan gura dau herrialdeak eta pertsonak ez dirala alkarren artean ulertzen. Zergaitik? Bakoitzak besteak baino gehiago, handiago, dala uste daualako.

“Nire herrialdea zurea baino hobeagoa da.” “Ni zu baino handiagoa naz.” “Nire aitak zureak baino gehiago agintzen dau.” “Ni zu baino aberatsagoa naz.” Etab., etab.

Eta, jakina, holan sortzen dira ikusiezin eta burrukak.

Badakit zer diharduzun pentsatzen: guztiok hizkuntza bera egiten badogu, ederto ulertuko garala alkarren artean.

Holan izan beharko leuke, baina, zoritxarrez, sarritan ez da holan gertatzen.

Adibide bat jarriko deusut:


Adiskide bati kontatu gura deusazu triste zagozala irakasleak zigortu egin zaitualako, edo anaia txikiak zure jostailurik gogokoena apurtu deusulako...

Ondo. Adiskideari kontatzen hasten zara. Eta, zer gertatzen da? Ba, zure adiskidea, zuk kontatu gura deusazuna entzun beharrean, berbetan hasten dala, oporrak zeinen ondo igaro dauzan, bera egon zan hondartza zeinen ederra zan...

Biok diharduzue...

Baina, ulertu deusazue alkarri?





M. CAJÓN

Ez, eta berbeta bera egiten dozue.

Halan eta guztiz ere, biotako inork ez zenduenez besteak inoana entzuten, hizkuntza desbardinetan berba egin bazendue lez gertatu da. Eta, zergaitik? Zuri zeurea bakarrik ardura jatzulako, eta berari berea.

Bakoitzaren ustez, berea bestearena baino askoz garrantzitsuago zalako.

Irakurri esaldi honeek eta pentsatu bertan esaten danaz:

“Ni zu baino gehiago naz”.


“Nireak zureak baino gehiago balio dau”.

“Ni zu baino gehiago naz”. “Ni zu baino gehiago naz”. “Ni zu baino gehiago naz”...

Eta holan, noiz arte?


Pertsonak eta herrialdeak arerio dirauen bitarte.

Gorrotoak, burrukak, iskanbilak, haserreak, gerrak...




*B*

*ibliako istorio ezagun batzuk kontatzen jakez honetan neska-mutikoei: Paradisuko bizimodua, Kain eta Abelen istorioa, Noeren Untziaren istorioa eta Babeleko dorrearen pasarte. Dana modu errezean umeak ulertu daien.*



- 1 Ipuin Unibertsalak
- 2 Zirkuko Itzalak
- 3 Gabonetako Ipuinak
- 4 Basoan
- 5 Bibliako Istorioak
- 6 Mixina



**Zorionak Bilduma**